Bizkaia

Sestao



## LA PROTECTORA ELKARTEA
## SOCIEDAD LA PROTECTORA

Multzo honetako etxebizitzak Sestaoko Kueto auzoan daude; Bide Nagusian, hain zuzen. La Protectora izeneko etxe merkeen elkartearen ekimenez eraiki zituzten. Multzoak 35 etxebizitza ditu, eta 1929an eraiki zituzten, Santos Zuntzunegi arkitektoak eginiko proiektuaren arabera.

La Protectora elkartearen etxeak eta La Humanitaria kooperatibarenak paraleloan daude, guztiak ere Kueto Gurutzean. XX. mendeko 20ko eta 30eko hamarkadetan Bizkaian eraikitako etxe merkeen adibide adierazgarriak dira. Hala, eraikin horietan gehien erabilitako arkitektura-tipologia ageri dute: bi solairuko familia bakarreko etxebizitzak, atzealdean bakoitzak bere baratzea duela. Eraikin mota horretan ohikoa zen banaketa ageri zuten: beheko solairuan atondoa, jangela, sukaldea, egongela, komuna, logela eta garbitokia dituzte, eta goikoan, berriz, hiru logela. Ohikoa zen moduan, bakoitzak bere baratzea du atzealdean. Eraikin soil eta xumeak dira, eta solairuak modu arrazionalean antolaturik dauzkate. Errepertorio plastikoa, berriz, XX. mendearen hasieran mota horretako etxebizitza sozialetan gehien erabilitako estiloari dagokio; euskal erregionalismo berriari, alegia. Monumentu izendatu dute 2012an.

Las viviendas que componen este grupo se ubican en Sestao, en el barrio de Kueto, concretamente en la calle Gran Vía, y fueron construidas por iniciativa de la Sociedad de Casas Baratas La Protectora. El grupo, compuesto por treinta y cinco casas familiares, se construyó en 1929, según proyecto del arquitecto Santos Zunzunegui.

Las casas de La Protectora se disponen en paralelo a las viviendas de la Cooperativa La Humanitaria, también en la Cruz de Kueto. Constituyen un ejemplo muy representativo de las casas baratas que se construyeron en Bizkaia en los años 20 y 30 del siglo XX, ya que responden a la tipología arquitectónica más empleada en estas construcciones: viviendas unifamiliares, de dos plantas. La distribución original de sus habitaciones era también habitual en este tipo de construcción: en la planta inferior disponían de *hall*, comedor, cocina, sala, retrete, dormitorio y lavadero, mientras que la superior se distribuían en tres dormitorios. También disponen, como era frecuente, de huerto individual en la parte trasera. Son edificios sencillos, sobrios, con una racionalización de las plantas y un repertorio plástico propio del regionalismo neovasco, el estilo más empleado a principios del siglo XX en esta tipología de viviendas sociales. Ha sido declarado monumento en 2012.